

2020 / 2021 ikasturtea

**AMAGANDIKO EDOSKITZE BIDEZKO MINAREN KONTROLA: BULARREKO HAUREN
TXERTAKETAN**

Saioa Aranzasti Carmona

LABURPENA

SARRERA: txertaketa bularreko haur osasuntsu baten bizitzako lehen urtean sarrien burutzen den prozedura mingarria da. Min honek epe labur zein luzera ondorio psikologiko nahiz jokabidezkoak izan ditzake, orratzekiko beldurra izatera eramanez. Honek, txertaketa programa ez betetzea, prozedura medikoak errefusatzeara eta tratamendua edota osasun-laguntza baztertu edo atzeratzea eragiten ditu. Amagandiko edoskitzea esnea bezalako sustantzia gozoaren irenspen, xurgatzearen ondoriozko distrazio eta amarekiko kontaktu zuzenaz baliatzen den metodo analgesiko ez farmakologiko eroso eta eraginkorra da.

HELBURUA: bularreko haurretan txertaketek eragiten duten minaren kontrolean amagandiko edoskitzeak duen eraginkortasuna aztertzea.

METODOLOGIA: literaturaren azterketa kritikoa egiteko datu-baseetan bilaketa burutu da: BVS, Pubmed, Medes, Cuideneta eta Dialnet. Honez gain, ebidentzian oinarritutako erakundeetan ere begiratu da, RNAO eta Cochrane Liburutegian. Azkenik, eskuzko bilaketa burutu da Science Direct aldizkari elektronikoan. Bilaketa estrategia aplikatu eta ebidentzia maila aztertu ondoren, 15 izan dira lanerako erabilitako artikulua: 12 ikerketa original, 2 berrikuspen sistematiko eta meta analisi bat.

EMAITZAK: amagandiko edoskitzea metodo segurua, kosturik gabekoa, naturala, gehiengoak eskuragarri izan dezakeena eta bigarren mailako ondorioz sortzen ez duena izateaz gain, beste metodoekin alderatuta ikusi da oso baliagarria eta eraginkorra dela bularreko haurretan txertoak sor ditzakeen minaren kontrolean. Lehen arreta mailako erizainen artean metodo honen erabilera oso urria da, izan ere, gehiengoak ez du trebakuntzarik jaso, eta gainera, unitate edo zentroan minaren kudeaketaren inguruko politikarik ez dagoela adierazten dute.

EZTABAIDA: amagandiko edoskitzea 1-12 hilabeteko haurren artean txertaketek eragindako minaren kontrolerako metodorik eraginkorrena dela ondorioztatu da. Edoskitzea interbentzio aurretik, momentuan eta ondoren burutu behar da. Txerto bat baino gehiago administratzen badira eraginkortasuna galtzen du metodoak.

ONDORIOAK: amagandiko edoskitzeak haurrak minarekiko duen erantzun psikologikoan eragina aztertu behar da. Osasun profesionalei gai honen inguruko heziketa eman eta bularreko haurrek txertoen minaren aurrean nola jokatu behar den adierazten duten protokoloak sortu behar dira.

HITZ GAKOAK: bularreko haurra, txertaketa, amagandiko edoskitzea, minaren kontrola

AURKIBIDEA

1.SARRERA	1
2.HELBURUA	4
3.METODOLOGIA	5
3.1.Bilaketa bibliografikoaren prozesua:	5
3.2.Bilaketa bibliografikoaren emaitzak	6
4.EMAITZAK.....	8
4.1.Bularreko haurretan mina baloratzeko metodoak	8
4.2. Amagandiko edoskitzea eta beste neurri farmakologiko eta ez farmakologikoen eraginkortasunaren arteko konparaketa	10
4.3. Lehen arreta mailako pediatren artean amagandiko edoskitzearen eta bestelako metodo ez farmakologikoen erabilera.....	14
5.EZTABAIDA.....	15
6.ONDORIOAK.....	17
7.BIBLIOGRAFIA.....	19
8.ERANSKINAK.....	23
1.ERANSKINA: PIO egitura: kontzeptu nagusiak, lengoia naturala eta deskriptoreak.....	23
2.ERANSKINA: Bilaketa estrategia	25
3.ERANSKINA: Fluxu-diagrama	28
4.ERANSKINA: Irakurketa kritikoa burutzeko gidoia.....	29
5.ERANSKINA: Artikuluen laburpen taula.	35
6.ERANSKINA: Llanto eskala.....	46
7.ERANSKINA: UWCH minaren eskala.....	47
8.ERANSKINA: MFCS eskala	48
9.ERANSKINA: Comfort eskala.....	49
10.ERANSKINA: FLACC eskala.....	50
11.ERANSKINA: NIPS eskala	51

TAULEN AURKIBIDEA

1.Taula: PIO/PICO egitura.....	5
2.Taula: Barneratze/kanporatze irizpideak.....	6

IRUDIEN AURKIBIDEA

1.Irudia: 5S Maila Integratuaren Ebidentzia Piramidea.....	8
--	---

LABURDUREN HIZTEGIA

- UNICEF: United Nations International Children's Emergency Fund
- FLACC: Face, Leg, Activity, Cry, Consolability
- OPS: Objective Pain Scale
- CHEOPS: Children's Hospital of Eastern Ontario Pain Scale
- OME: Osasunaren Munduko Erakundea
- PIO/PICO: P-Patient/Problem, I-Intervention, C-Comparison, O-Outcomes
- DeCS: Descriptores en Ciencias de la Salud
- MeSH: Medical Subject Headings
- BVS: Biblioteca Virtual en Salud
- RNAO: Registered Nurses Association of Ontario
- CASPe: Critical Appraisal Skills Programme
- AEP: Asociación Española de Pediatría
- UWCH: University of Wisconsin Children's Hospital
- MFCS: Modified Facial Coding Score
- NIPS: Neonatal Infant Pain Scale
- GMI: Gorputz Masa Indizea

1.SARRERA

Txertoen historia XVIII. mende amaieran hasi zen, Edward Jenner medikuak behi-baztangaz kutsatutako abeltzainek baztanga arruntaren aurkako immunitatea garatzen zutela ohartu zenean. Honela, behi-baztanga pertsona osasuntsuei inokulatzea bururatu zitzaion, baztangaren aurka immunitatea gara zezaten (1). Geroztik aurrerapen asko egin dira txertoen inguruan. Hauen eskuragarritasuna aurrerapauso handia izan da medikuntzaren arloan, txertaketa programak gaixotasun kutsagarrien zama murrizteko modurik eraginkorrena izan dira (2).

Gaur egun, ez du inork zalantzan jartzen txertaketa programak osasun publikoaren aktiborik baliotsuenetakoak direla. Izan ere, txertoek banakoa babesteaz gain, babes hori biztanle multzora hedatzen dute (1). Haurren txertaketa programak hilkortasun eta erikortasun globala era nabarmen batean murriztea lortu dute (3). “United Nations International Children’s Emergency Fund”-en (UNICEF) arabera, haurren txertaketa programak urtero 3 milioi haurren bizitza salbatzea lortu dute (4).

Txertaketa bularreko haur osasuntsu baten bizitzako lehen urtean sarrien burutzen den prozedura mingarria da (5). Estutasun eta antsietate handia eragin dezakete bai txertoak jasotzen dituzten umeetan, baita, hauen gurasoetan ere (6). Hainbat ikerketek jaioberri nahiz haur txikiek minarekiko duten pertzepzioa helduen berdina edo handiagoa izan daitekeela erakutsi dute, epe labur nahiz luzera ondorioak eraginez (5).

Epe laburrera: antsietatea, estutasuna, sinkopea, suminkortasuna, loaren nahasmendua eta apetitu galera ager daitezke (7). Txertoekin erlazionatutako min eta estutasunak epe luzera sor ditzakeen ondorioen artean, ondorio psikologiko eta jokaerazkoak daude (4). Garapen neurologiko eta psikologikoan, prozesu kognitibo eta ikaskuntzan ere ondorio kaltegarriak dituela ikusi da (5).

Txertoak jasotako haurren bi herenak orratzekiko beldurra garatzen dute (4), estimatzen da helduen %30ak orratzekiko beldurra daukala (8). Honek, txertaketa programa ez betetzea, prozedura medikoak errefusatzeko eta tratamendua edota osasun-laguntza baztertu edo atzeratzea eragiten du (9). Gaur egun, bost haurretatik bat ez dago ohiko txertoen programetan sartuta, eta gutxi gorabehera, 1,5 milioi haur hiltzen dira urtero eskuragarri dauden txertoek prebenitu ditzaketan gaixotasunengatik (10). Txertoarekin lotutako minaren epe luzeko ondorio horiek txertatzean mina kudeatzeko estrategien

identifikazioa sustatu dute (4) eta ikusi da oso garrantzitsua dela haurretan mina baloratzeko estrategia zehatzak izatea, ondorio hauek saihestu ahal izateko (4).

Haurren mina baloratzea zailtasuna izan daiteke (11). Jaioberriak mina hitzekin komunikatzeko gai ez izan arren, baloratu ahal diren portaerazko zeinuak eta adierazle fisiologikoak dituzte. Erizain bezala zeinu eta adierazle fisiologiko horiek kontuan izan behar ditugu. Hauek baloratzeko erarik eraginkorrena eskalak erabiltzea da (12).

Txertaketek eragiten duten mina tratatzea oinarrizko giza eskubide bat da, mundu osoko lehen arreta mailako pediatria arloaren parte izan beharko lukeena (4). Gainera, minaren kontrola Beauchamp eta Childress-ek definitutako benefizentziaren printzipio bioetikoarekin lotura zuzena dauka, erizain bezala hori betetzera behartuta gaude (13).

Azken hamarkadan, txertoen ondoriozko mina kontrolatzeko estrategia ugari ebaluatu dira, hala nola, esku-hartze farmakologikoak, fisikoak, prozedurazkoak eta psikologikoak. Esku-hartze horietako askoren eraginkortasuna ziurtatua izan arren, ohiko praktika klinikoan ez dira oso erabiliak (2).

Esku-hartze farmakologikoak nahiz konbinatuak, hau da, interbentzio farmakologiko eta ez farmakologikoen arteko elkarketak, ez dira oso ohikoak eguneroko praktikan. Hauen eraginkortasunaren inguruko zalantzak, bigarren mailako ondorioen inguruko kezkek, denbora eta kostua direla eta (2). Arrazoi hauengatik Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) interbentzio ez farmakologikoak lehenesten ditu farmakologikoen gainetik (10).

Azken urteetan, interbentzio ez farmakologikoak metodo hobetsiak bihurtu dira, inbaditzaileak ez direlako, kostu aldetik eskuragarriagoak direlako, eraginkorrak direla frogatu delako, efektu kaltegarririk ez dutelako eta erizainek egin ditzaketen zeregin independenteak direlako (9). Minaren maneirako metodo ez farmakologikoek minaren pertzepzioa gutxitzen laguntzen dute, mina toleragarriagoa eginez eta antsietatea murriztuz (16).

Teknika ezberdinak erabiltzen dira, distrazio teknikak, xurgatze ez nutritiboa, soluzio gozoen administrazioa (5), haurra amaren azalarekin kontaktuan egotea (14) hotza edo bibrazioa aplikatzea txertaketa egingo den arean (11), etab. Metodo ez farmakologiko hauek haurraren eta gurasoen antsietatea murriztea lortu dezakete (11).

Metodo ez farmakologiko artean aurkitzen da amagandiko edoskitzea edo (5). OME-k gomendatzen duen metodo bat da (10). Metodo hau txertoaren injekzioen aurretik, bitartean eta ondoren edoskitzearen efektu analgesikoa erabiltzean eta aprobetxatzean datza (14). Sistema eroso eta eraginkorra da, xurgapena, amaren esnea bezalako substantzia gozoa irenstea, distrazioa eta amarekiko zuzeneko kontaktuaren batura aprobetxatzen ditu. Gizakien esneak minean zeharkako eragina duela uste da, estimulu nozizeptiboak murriztuz eta transmisio nozizeptiboa blokeatuz, bide inhibitzaile eta minaren sistema modulatzaileraren aktibazioa eraginez (15).

Bularreko hurrek minarekiko duten pertzepzioaren inguruko uste okerrek, umeetan mina bezalako esperientzia subjektiboa kuantifikatzeko zailtasunek eta mina arintzeko teknika analgesikoen inguruko ezagutza eskasiak, errutina batera eraman gaitu non haurtxoek txertatzean jasan dezaketen minari jaramonik ez diogun egiten. Hori dela eta, txertoekin lotutako mina kontrolatzea edo gutxitzea erizaintzako profesionalak lortzear dugun helburuetako bat da, esperientzia hori haurrarengan zein gurasoengan hobetuz (17).

Txertaketarekin lotutako mina estres eta larritasun iturri da bai haurrentzat, hauen gurasoentzat, baita haiek administratzen dituzten profesionalentzat ere. Neurriak hartzen ez badira, min horrek antsietate handia sor dezake etorkizunean prozeduraren aurretik, orratzekiko beldurra eta baita osasun saihesteko jokabideak ere (17).

2.HELBURUA

Lanaren helburu nagusia:

- Pediatriako kontsultetan bularreko hurren txertaketa burutzean, amagandiko edoskitzea mina kontrolatzeko erabiltzearen eraginkortasuna aztertzea.

Helburu nagusia lortu ahal izateko jarraian helburu espezifikoak planteatu dira:

- Bularreko hurretan txertaketak eragin dezakeen mina baloratzeko metodoak zehaztea.
- Amagandiko edoskitzea eta beste neurri farmakologiko eta ez farmakologikoen eraginkortasunaren arteko konparaketa egitea, bularreko hurren txertaketak eragiten duen minaren kontrolean.
- Txertaketek eragiten duten minaren aurka lehen arreta mailako pediatren artean amagandiko edoskitzearen erabilera zehaztea.

3.METODOLOGIA

Lan honen funtsa, amagandiko edoskitzeak bularreko haurren txertaketak eragindako minaren kontrolean eragina aztertzea da; beraz, gai honen inguruan eskuragarri dagoen informazioa zientifikoa bildu da azterketa kritiko bat egin da.

3.1.Bilaketa bibliografikoaren prozesua:

Gaia eta helburua finkatu ostean, helburuari erantzuna bilatzeko kontzeptu nagusiak erabili dira. Honetarako, PIO/PICO egitura jarraitu da (*ikus 1.taula*). Behin kontzeptu klabeak zehaztuta, hauen antonimoak eta sinonimoak bilatu dira. Ondoren, hitz gako horiek lengoaia kontrolatura pasa dira, bertatik datu-base bakoitzeko deskriptoreak atera ahal izateko (*ikus 1.eranskina*).

1.Taula: PIO/PICO egitura

P	Population / Patient / Participant	Txertautak izango diren bularreko haurrak
I	Intervention / Issue / Interest	Amagandiko edoskitzea
O	Outcome	Minaren murrizketa/kontrola

Iturria: Propioa

Bularreko haurra definitzeko, "Infant" erabili da. Jarraian, txertaketen inguruko informazioa aurkitzeko "Vaccination" edo "Vaccine" erabili dira, "Immunization" hitza deskriptorea ez izan arren bilaketa batzuetan ere erabili da emaitzak zabaltzen baitzuten. Amagandiko edoskitzerako "Breastfeeding" erabili da eta minaren kontrola definitzeko "Pain Management" eta "Pain" hitzak erabili dira, izan ere, bi hitz hauen konbinaketa erabiltzean lanerako artikulu interesgarri gehiago lortu dira. Orokorrean metodo ez farmakologikoez txertaketetan minaren kontrolean duten eragina aztertzeko helburuarekin eta hauen inguruko informazio gehiago lortzeko "Breastfeeding" hitzaren ordez "Non Pharmacological Interventions" hitza ere erabili da bilaketa batean (*ikus 1.eranskina*).

Deskriptoreak aukeratuta bilaketa bibliografikoa martxan jarri da oinarritzko datu-baseetan: BVS, Pubmed, Medes, Cuideneta eta Dialnet-en. Datu-base hauetaz gain, ebidentzian oinarritutako erakundeetan bilaketa ere egin da: Cochrane eta RNAO. Amaitzeko, eskuzko bilaketa burutu da Science Direct aldizkari elektronikoan. Datu-base

hauetan "AND" eta "OR" operadore boolearraren bidez konbinatu dira. Datu-base ezberdinetan hainbat bilaketa egin dira, erabilgarrienak aukeratuz (*ikus 2.eranskina*).

Bilaketa bidez lortutako artikuluak lanerako baliagarriak izateko eta gaiari erantzuna eman ahal izateko barneratze nahiz kanporatze irizpideak finkatu dira (*ikus 2.taula*).

2.Taula: Barneratze/kanporatze irizpideak

BARNERATZE IRIZPIDEAK	KANPORATZE IRIZPIDEAK
<p><u>Argitalpen data:</u> 2010-etik aurrera argitaratuko artikuluak hartu dira kontuan. Lortutako informazioa ahalik eta eguneratuena izateko asmoz.</p> <p><u>Hizkuntza:</u> Ingelesean zein Gaztelera argitaraturiko artikuluak hartu dira kontuan, hizkuntza hesia dela eta.</p> <p><u>Populazioa:</u> Populazio bezala 1-23 hilabete arteko bularreko haurrak dituzten artikuluak hartu dira kontuan.</p> <p>“Bularreko haurren txertaketetan, mina kontrolatzeko amagandiko edoskitzea eraginkorra da?” <u>ikerketaren galdera erantzuten duten artikuluak</u></p> <p><u>Ikerketa eta lan motak:</u> Ikerketa esperimentalak interesatzen dira, lanaren helburua eraginkortasuna aztertzea baita, eta horretarako aipatutako lan motak dira egokienak. Hauez gain, errebisio bibliografikoak eta meta analisiak ere kontuan hartu dira.</p>	<p><u>Argitalpen data:</u> 2010.urtea baino lehen argitaratu artikuluak ez dira kontuan hartuko lortutako informazioa ahalik eta eguneratuena izateko helburuarekin.</p> <p><u>Hizkuntza:</u> Ingelesean nahiz Gaztelaniaz argitaratu ez diren artikuluak ez dira kontuan hartuko.</p> <p><u>Populazioa:</u> 1-23 hilabete baino gutxiago edo gehiagoko haurretan egineko azterketak izatea.</p> <p><u>Ikerketa galderarekin lotuta ez dauden artikuluak</u> ez dira erabiliko.</p> <p><u>Ikerketa eta lan motak:</u> Literatura grisa, iritzi artikuluak, tesiak, aktak, konferentziak... fidagarritasun falta dela eta.</p>

Iturria: Propioa

3.2. Bilaketa bibliografikoaren emaitzak

Datu-base ezberdinetan bilaketa estrategia hauek aplikatuz 1.149 artikulua aurkitu dira. Kontuan hartuta barneratze irizpideetako bat artikuluak azken 10 urteetan argitaratuak izatea dela, datu-baseetan 2010-2020 filtroa aplikatu da. Beste barneratze irizpidea hizkuntza gaztelania edo ingelesa izatea da, beraz hizkuntza filtroa ere aplikatu da. Honela, bilaketa 785 artikulutara murriztea lortu da.

Jarraian, errepikatutako artikuluak baztertzeari ekin zaio, 64 izan dira baztertutako artikuluak. Geratzen zirenekin izenburua eta “abstract”-a irakurri ondoren eta barneratze

eta kanporatze irizpideak kontuan hartuz (*ikus 2.taula*), lanerako baliagarriak diren artikuluak filtratu dira, bilaketa 43 lanetara murriztuz. Baztertutako artikulu gehienak ez zetozen gaiarekin bat, beste askok, ez zuten populazioaren barneratze irizpidea betetzen, eskusiboki jaioberriei zuzenduta baitzeuden.


43 artikuluak osorik irakurtzeari ekin zaio, baina, horietatik 11 ezin izan dira testu osoan lortu eta ondorioz baztertuak izan dira. Gainontzeko artikuluaren irakurketa kritikoa burutua da, helburua eta barneratze eta kanporatze-irizpideak birpasatuz eta testuaren kalitatea eta fidagarritasuna zehaztuz. Honela, 14 izan dira lanerako hautatutako artikuluak. Beste artikulu bat, “Snowballing” teknika erabiliz hautatu da, teknika hau aurrez bilatutako beste artikulu edo lanen bibliografiatik ikerketak lortzean datza (*ikus 3.eranskina*).

Lana burutzeko guztira 15 artikulu erabili dira. 15 dokumentu horien fidagarritasuna aztertzeke eta lanerako erabilgarriak izan daitezken zehazteke irakurketa kritikoa burutu da. Honetarako, “Critical Appraisal Skills Programme” (CASPe)-ren ikerketa kualitatiboan (18) eta berrikuspen sistematikoen kalitate metodologikoa aztertzeke gidoiak (19) erabili dira (*ikus 4.eranskina*). Honez gain, ebidentzia-maila zehazteke Haynes-en piramidea erabili da (20) (*ikus 1. irudia*). Lanerako erabili diren artikulu motak honakoak dira:

- Meta analisisa: artikulu 1
- Errebisio sistematikoa: 2 artikulu
- Ikerketa esperimental garbiak: 7 artikulu
- Ikerketa kuasi-esperimentalak: 2 artikulu
- Kohortezko ikerketa prospektiboak: artikulu 1
- Zeharkako ikerketak: 2 artikulu

Lortutako 15 artikuluak laburtzen dituen taula bat sortu da, bertan artikulu bakoitzaren egile, publikatze data, helburu, interbentzio, emaitzak eta ondorioak adierazi dira (*ikus 5.eranskina*).

Datu-baseetan bilaketa egiteaz gain, beste asoziazio eta ospitale ezberdinetako txostenak erabili dira: “Asociación Española de Pediatría” (AEP), Osakidetza edo OME. Eskuzko bilaketa ere burutu da, baina, ez da emaitza erabilgarriarik aurkitu.



1.Irudia: 5S Maila Integratuaren Ebidentzia Piramidea. Iturria: Haynes RB. Of studies, syntheses, synopses, summaries and systems: the “5S” evolution of services for evidence-based health care decisions. *Evid Based Med.* 2006;11(6):162-164. DOI:10.1136/ebm.11.6.162-a

4.EMAITZAK

Jarraian datozen orrialdetan lanean planteatutako helburuak beteko dira:

4.1.Bularreko haurretan mina baloratzeko metodoak

Jaioberri edo bularreko haurretan, erizainok mina aztertzeko garaian zailtasunen aurrean aurki gintezke. Hitzez mina adieraztea ezinezkoa izateak ez du esan nahi minaren balorazioa alde batera utzi behar denik, izan ere, badaude hainbat metodo edota seinale haur txikietan mina baloratu ahal izateko (12). Eskalak, haurretan mina baloratzeko erremienta oso garrantzitsua dira, hauek min akutuaren aurrean hurrek dituzten erantzun konduktualak aztertzeaz arduratzen dira (11).

1.LLANTO eskala (Negarraren eskala):

“Llanto” eskala, haurretan minaren intentsitatea baloratu ahal izateko min akutuarekin lotzen diren 5 parametro fisiologiko eta jokabidezko aztertzen ditu: negarra, aurpegiko espresioa, arnasketa patroia, jarrera eta tonu muskularra. Haurra intentsitate handiko negarra burutzen duenean aplikatzen da eta item bakoitzeko 0tik 2rako puntuazio bat ematen zaio haurraren erantzunari. Ondorioz, puntuazioa 0-10 bitartekoa da. Honen bitartez 20-40 segundotan haurrak jasan duen minaren estimazio zehatz bat egitea lortu daiteke eta gainera, objetibotasun maila altua dauka (5) (*ikus 6.eranskina*).

2. UWCHen minaren eskala

“University of Wisconsin Children’s Hospital”-en (UWCH) minaren eskala 3 urtetik beherako eta hitzez komunikatu ezin diren haurrentzat minaren intentsitatea baloratzeko sortutako eskala da. Eskala honek jokaerazko 5 parametro aztertzen ditu: ahozkoak, aurpegikoak, jokaerazkoak, posturalak edo gorputz mugimenduak eta loa. 5 item hauei 0-5 arteko puntuazioa ematen zaie (15) (*ikus 7.eranskina*).

3.MFCS eskala:

“Modified Facial Coding Score” (MFCS) eskalak mina adierazten duten 6 portaera parametro baloratzen ditu: bekainen arteko gunearen zimurtzea, begiak indarrez ixtea, ildo nasogenianoa nabarmentzea, ahoa irekitzea, kokotsaren dardara eta gorputz enborraren mugimenduak. Honela haurrak 0tik 6erako puntuazioa lortu dezake (6,21) (*ikus 8.eranskina*).

4.COMFORT Eskala:

Comfort eskala zainketa intentsiboen esparruan erabiltzeko sortu zen eskala da eta haurrak minaren aurrean duen estutasuna baloratzeko baliagarria da. Bertan 2 parametro fisiologiko eta 5 portaerazkoak baloratzen dira: alerta egoera, agitazioa, arnasketa (arnasketa mekanikoa) edo negarra (arnasketa espontaneo), mugimendu fisikoak, gihar tonua eta aurpegiko tentsioa. Bakoitzak 5 erantzun kategoria dituelarik (22) (*ikus. 9.eranskina*).

5. FLACC eskala:

“Face, Legs, Activity, Cry, and Consolability” (FLACC) eskalak 5 parametro aztertzen ditu: aurpegiko espresioa, hanken posizioa, jarduera, negarra eta lasaitzeko gaitasuna edo kontsolatzeko gaitasuna. Pazienteak 0-10 bitarteko puntuazioa lortu dezake (4,23) (*ikus 10.eranskina*).

6.NIPS eskala

“Neonatal Infant Pain Scale” (NIPS) haurretan minaren neurketa burutzeko helburuz diseinatu zen (7). Eskala honek, 6 parametro baloratzen ditu: aurpegiko espresioa, negarra, arnasketa eredua, besoa eta hanken mugimendua eta kontzientzia egoera. Parametro bakoitza 0 (betetzen ez badu) eta 1 (betetzen badu) puntuazioez betetzen da, negarraren parametroa izan ezik, honek 0,1,2 puntuazioak baititu (6,7,23,24,25) (*ikus 11.eranskina*).

Eskala hauez gain, beste hainbat neurri ere erabili dira haurrek txertaketa ondorioz jasaten duten mina baloratzeko erreminta gisa:

1.Negarraren iraupena:

Negarraren iraupena segundotan neurtzen da, haurrari lehenengo txertoa administratu eta lehen negarrarekin hasten den momentutik; intentsitate handiko ahots-bibrazioa harmonikoak izaten dira eta txertoa administratu eta berehala askatzen dira (4,5,6,15,21,23).

Negarraren iraupena kuantifikatzea abantaila handia suposatzen du neurri objektiboa baita. Hala ere balorazio metodo honek desabantailak ere baditu, baliteke haurra beste kausa batengatik negarrez aritzea, gosea duelako, egarri delako, ezezagun baten aurrean dagoelako, etab (15).

2.Negarraren latentzia

Txertoaren inokulazio momentutik (erizainak “in” soinuaz adierazia) haurra negarrez hasten den arteko denbora tarteak bezala definitzen da. Hiru ikerketek erabili dute metodo hau haurretan injekzio intramuskularrek eragiten duten mina baloratzeko (6,21,23).

3.Bihotz-maiztasunaren monitorizazioa

Metodo hau, txertoa administratu aurretik eta ondoren haurraren bihotz-taupaden monitorizazio bat egitean datza. Eskuz egin daiteke (4), edo pusioximetro bidez (24).

4.2. Amagandiko edoskitzea eta beste neurri farmakologiko eta ez farmakologikoen eraginkortasunaren arteko konparaketa

Lanaren helburua amagandiko edoskitzearen eraginkortasun egiaztatzea da, honetarako, amagandiko edoskitzea eta beste metodo farmakologiko eta ez farmakologikoen arteko konparaketa burutu da; amagandiko edoskitzea metodo eraginkorra den ziurtatzeaz gain, metodorik eraginkorrena den zehazteko helburuz.

1.Amagandiko edoskitzea

Edoskitzea haur txikiak elikatzeko modurik egokiena eta naturalena da. Bularra ematean haurrak elikatzeari gain; min, deserosotasun, gaixotasun egoeren aurrean lasaitasuna ere eragiten die. Era berean, haurrak erosotasuna edo kontsueloa behar duenean amaren bularra bilatzen du (26).

Mina arintzeko helburuz amaren esnearen erabilera lehen aldiz 2002.urtean aztertu zen. Gaur egun, honen eraginkortasuna oso frogatua dago jaioberriei egiten zaizkien prozedura mingarrien aurkako tratamendu bezala, ez horrenbeste 1-12 hilabeteko haurretan (5).

Amagandiko edoskitzea metodo analgesiko konbinatua dela kontsideratzen da, izan ere, esneak duen zapore gozoaren bitartez opioide endogenoak kanporatzen dira, honez gain, bularra ematean ama eta haurrak azal bidezko kontaktu zuzenak amaren eta haurraren arteko elkarreragin sozial intimo bat eragiten du eta honek, estresaren aurkako oxitozina hormona askatzea eragiten du (21). Badirudi melatonina hormona ere aska daitekeela (26), izan ere, gizakion esneak melatoninaren aitzindari den triptofanoa du bere osaeran. Melatoninak propietate analgesikoak eta hanturaren aurkakoak ditu eta endorfinen ekoizpena estimulatu du (15). Beraz, ondorioztatu daiteke erlaxazioaren eta analgesiaren mekanismoak sinergikoki funtzionatzen dutela (21).

Bularreko edoskitze zuzenak zentzumen anitzeko estimuluak biltzen ditu, hala nola; dastamena, ukipena, ikusmena, usaimena eta entzumena, kontaktu fisikoa eta xurgatzea barne (4). Xurgapenak endorfinen ekoizpena sustatzen duela uste da, beraz bularra ematean analgesia eragiten duen beste mekanismo bat da (15).

Amagandiko edoskitzea metodo segurua, kosturik gabekoa (4), naturala, gehiengoak eskuragarri izan dezakeena (7), eta bigarren mailako ondorioz sortzen ez duena izateaz gain (5), ikerketa ezberdinak aztertu ondoren ikusi da metodo oso baliagarria eta eraginkorra dela bularreko haurretan txertoak sor ditzakeen minaren kontrolean (4,5,6,15,21,22,23). Ebidentzia zientifikoa aztertu ondoren argi ikusi da, txertaketa garaian edoskitzea eskaintzea, esku-hartzerik ez burutzearekin edo bestelako motako metodo analgesiko edo ez analgesikoekin alderatuz eraginkorragoa dela txertaketek eragiten duten minaren murrizketan.

Honez gain, amagandiko edoskitzeak, txertaketa prozesuan zehar haurren gurasoak zuzeneko parte hartzea izatea eragiten du (4), honela gurasoak zaintza prozesuaren parte egiten ditu, eta ikusi da minaren kontrolean parte hartze zuzena izateak gurasoengan onura psikologikoa eragiten duela (24). Gainera, metodo honek ez du aurrez gurasoen prestakuntzarik estrarik behar izaten (15), ezta osasun-sistemaren kostu estrarik sortzen (24).

Mina baretzeko garaian oso garrantzitsua da bularra emateko teknika egokia izatea, minaren kontrolaren prozesua eraginkorra izan dadin. Haurrari denbora bat eman behar

zaio xurgatze eraginkorra lortu arte, behin xurgatze eraginkorra burutzen ari dela ziurtatuta haurra txertatu daiteke. Amagandiko edoskitzea injekzioa administratu bitartean, eta administratu eta gero mantentzea gomendatzen da (26).

2.Amagandiko edoskitzea vs soluzio edulkoratuak:

Jaioberrietan burutzen diren prozedura mingarrietan glukosaren eta sakarosaren administrazio orala teknika seguru eta erabilgarria dela aztertua dago. Bibliografiaren arabera, metodo honen eraginkortasun handiena haur jaioberrietan ikusi da, 12 hilabetetako haurretan neurrizko eragina izanez eta urte batetik gorako haurretan efektu oso urria izanez (26).

Soluzio edulkoratuen administrazioak eragiten duen efektu analgesikoa badirudi, ahoko dastamen errezeptoreen bitartekaritzaren bidez burutzen dela (26). Sakarosa, glukosa edo dextrosa bezalako soluzio gozoek opioide endogenoak askatzea eragiten dute, honen ondorioz, txertoak eragiten duten minaren intentsitatea murriztea (2,4,26).

Metodo hau txertaketa burutu baino 1-2 minutu lehenago aplikatzea gomendatzen da (26). Dosi espezifikoaren inguruan ez dago informazio zehatzik (2), hala ere, sakarosa haurraren pisuaren arabera 12-25g sakarosa 10ml uretan diluitzea gomendatzen da (26).

Soluzio edulkoratuek sortu ditzaketen bigarren mailako efektuen artean eztula, goragalea edo okadak edota kontrako eztarrira joatea sor ditzakeela ikusi da. Kasu guztietan klinikoki esanguratsuak izatera ez ziren iritsi eta segundo batzuk pasata espontaneoki konpondu ziren (2,5).

Sakarosa, glukosa baino eraginkorragoa da. Glukosak eragin mistoa duela ikusi da eta ez da sakarosa bezain eraginkorra. Eskura izanez gero sakarosa erabili beharko litzateke lehen aukera (2).

Amagandiko edoskitzea soluzio edulkoratuekin alderatzean minaren maneian eraginkorragoa dela ikusi da (4,5,21,24). Negarraren iraupena, minaren puntuazio (4,5,21,24,27) eta negarraren latentzia emaitza hobekak lortu dira amagandiko edoskitzea administratu zaien haurretan (4,5,21,24). Hala ere, kontrol taldearekin alderatuta emaitzak hobekoak izan dira; minaren puntuazio baxuagoak lortu dituzte injekzio momentuan, baita administrazioaren ondoren ere; negarraren iraupen motzagoa izan dute (4,5,21); eta bihotz-maiztasunaren igoera ere txikiagoa izan da kontrol taldearekin alderatuz (4).

Amagandiko edoskitzea eta soluzio edulkoratuen arteko konbinaketaren eraginkortasuna aztertu da, soluzio gozoak edoskitzeari gehitzeak ez du efektu gehigarririk bularreko haurretan txertaketak sortzen dezaketen minaren aurrean (2,24).

3.Amagandiko edoskitzea vs anestesiko topikoak eta esprai hozgarriak

Anestesiko topikoen funtzio mekanismoei dagokionez, min bulkadaren aldi bateko sorrera eta transmisioaren inhibizioa burutzen dute, honetarako dermisaren kontaktatuan dauden nerbio-bukaeren ekintza potentzialaren blokeoaz baliatzen dira. Analgesia dermikoa sortzen dute (anestesiko topiko lokalak azalaren azpitik 5 mm-ko sakonerara arte eragiten dute) eta orratzak larruzala zulatzeak eragin dezaketen mina eraginkortasunez murrizten dute. Anestesiko topikoek 20-60 minutu behar dute efektua eragiteko; hau aldakorra da, erabiltzen den anestesikoaren presentazioaren arabera (2).

Anestesiko topikoek sortu ditzaketen efektu desatseginei lotuta ikusi da orokorrean zurbiltasuna eta eritema lokala izan direla (2). Aplikazio gunean hantura eta azkura ere sor dezaketela ikusi da (6).

Anestesiko topikoen artean farmako ezberdinak aurki ditzakegu horien artean EMLA pomada topikoa eta vapocoolant espraia.

Vapocoolant-a likido lurruna da, larruzalean aplikatzean, gunea hoztuz anestesiko bezala jokatzen duena (2,6). Hotz sentazioak minaren seinaleak blokeatuz jokatzen du, mina jasan beharrean hotza eraginez. Metodo honen beste funtzio mekanismo bat, nerbio-zuntzen nerbio-bulkadaren abiadura murriztuz jokatzen duela da. Vapocoolant-ak larruzalean hotz edota erredura sentazioak eragiten dituztenez, deserosoa izan daiteke zenbait haurrentzat eta estimulu kaltegarri gisa antzeman dezakete (2). Vapocoolant-a anestesiko topikoen alternatiba erakargarria dira aplikazio denbora laburra dela eta (2,6).

EMLA anestesiko topikoa da, %2,5 kontzentrazioko lidokaina eta %2,5 kontzentrazioko priokainaren arteko nahasketaz osatua. Pomada topiko honen administrazioa burutzeko eta efektua eraginkorra izan dadin 45-60 minutu itxaron behar dira, txertaketa prozesuak irautean duen denborari dagokionez denbora estra bat suposatzen du (6).

Minaren puntuazioei dagokionez, ikusi da, edoskitze naturalak vapocoolant espraiak baino efektu analgesiko handiagoa duela minaren kontrolari dagokionez (7,27). Amagandiko edoskitzea beste anestesiko topikoekin konbintzeak negarraren iraupena murrizteko gai direla erakutsi dute (2,27), baita, minaren puntuazioak ere (2,6,27).

4.Amagandiko edoskitzea vs Edoskitze artifiziala

Arrazoi ezberdinak egon daitezke haurrari amagandiko edoskitzea eskaini ez daitekeena. Kasu horietan formulako esneak ere minaren murrizpenean eragina duen ere aztertu dute hanbat artikuluk (15,23). Viggiano C, et al.-en arabera, edoskitzea artifizialak kontrol taldearekin alderatuz min puntuazioak txikitu eta negarraren iraupena %50era murrizten du (23). Zurita JN, et al.-ren arabera, edoskitze artifizialak ez du efektu gehigarririk negarraren iraupena eta minaren puntuazioari dagokionez (15).

5.Amagandiko edoskitzea VS masaje terapia

Masaje terapia edo ukimenezko estimulazioa injekzio gunearen inguruko larruzalaren presioa egitean datza. Txertaketak eragin dezakeen mina murrizteko inongo kosturik gabeko interbentzioa da. Teknika hau ukimen sentsazioa, min sentsazioarekin lehiatzen den hipotesian oinarritzen da (26). Masajeak endorfina eta serotonina hormonon jariaketak areagotzen ditu eta horrek, egoera lasaigarria eta esperientzia atsegina izata eragiten du gizabanakoan (25).

Injekzioa administratu aurretik eta bitartean burutu behar da. Txertatu ondoren masajearekin jarraitzen bada txertoaren bigarren mailako ondorioak, hala nola, eritema, indurazioa... areagotu baitaitezke (26).

Haurtxoentzat, ukimenaren estimulazioak kontu handiz eta beste teknika batzuekin konbinatuz burutu behar da, hau da, haurrari estimulu multisentsorialak eskaini behar zaizkio; adibidez, hitz egitea, aurpegia laztantzea edota soluzio edulkoratuak ematea (26).

Estefahani MS, et al.-en arabera, txertoen minaren maneian eraginkortasun handiena erakutsi duen metodoa amagandiko edoskitzea izan zen. Hala ere, masaje terapiak kontrol taldeak baino min parametro baxuagoak lortu zituela ikus daiteke (25,27).

4.3. Lehen arreta mailako pediatren artean amagandiko edoskitzearen eta bestelako metodo ez farmakologikoen erabilera

Haurren prozedura mediko mingarrien aurrean metodo ez farmakologikoen erabilerean garrantzia azken urteetan indarra hartzen joan den gaia izan da. Ikerketen arabera ikusi da erizainen laurdenak bakarrik erabili duela metodo farmakologiko edota metodo ez farmakologikoren bat hurrei dagozkien prozedura mediko mingarriek eragiten duten mina, antsietatea eta deserosotasuna baretzeko (9).

Ikerketan parte hartutako erizainen herenak baino gehiagok haurrengan mina kudeatzeko metodoen inguruko trebakuntzarik ez duela jaso eta mina baloratzeko metodo edota eskalen inguruko ezagutzak ere gehiengoak ez dituela ikusi da, honen ondorioz, oso erizain gutxik erabiltzen ditu (9). Gainera, unitate edo zentroan mina kudeatzeko politikarik ez dagoela ikusi da (3).

Minaren kontrolerako metodoak erabiltzen dituzten erizainen artean metodo ez farmakologikoen erabilera lehenesten dira. Maiztasun handienaz distrazio teknikak erabiltzen dira (3,9), masaje terapia teknikarekin batera (9). Txertoek eragiten duten minaren maneirako amagandiko edoskitzea oso gutxitan erabiltzen den metodoa da (3,9). Batez ere 6 hilabetetik beherako haurretan erabiltzen da (3).

5.EZTABAIDA

Informazioa aztertu ondoren, ikusi da, guztiak bat datozela eta amagandiko edoskitzeak txertoek eragindako minaren kontrolean duten eraginkortasuna frogatzen dela ikusi da. Amagandiko edoskitzea 1 eta 12 hilabeteko haurren artean txertaketek eragindako minaren kontrolerako metodorik eraginkorra dela ondorioztatu da.

Viggiano C, et al., Lobato CL, et al. eta Esfahani MS, et al. sesio berean 2 txertaketa jarraiekin egin zuten proba (22,23,25). Nieto A, et al.-ek, 2 hilabeteko haurrei egun berean 2 txerto administratu zituen eta 4 hilabeteko haurrei 3 (5). 2 txerto administratzean amagandiko edoskitzea eman zitzaien haurretan puntuazioaren gutxitzea aurkitu arren, negarraren iraupenean ez zen aldakatarik egon. Era berean, 3 txerto administratzean amagandiko edoskitzearen administrazioak min parametroak eta negarraren iraupenaren murrizketan ez zen estatistikoki ezberdintasun esanguratsurik lortu. Beraz, amagandiko edoskitzea ez da nahiko txerto bat baino gehiago administratzean sortzen den minaren aurrean (5,22,23,25).

Bibliografiaren azterketa burutu ondoren ondorioztatu da, amagandiko edoskitzea eraginkorragoa izateko injekzioa administratu bitartean, eta administratu eta gero mantentzea gomendatzen da (26).

Anestesiko topikoen eta amagandiko edoskitzearen arteko konbinaketa txertoek eragindako minaren aurkako metodo eraginkorra direla ikusi da (2,6,27). Harrison D. et al. eta Vibhuti S. et al-en ikerketetak ikusi da amagandiko edoskitzea anestesiko

topikoekin konbinatzea eraginkorra izan daitekeela (2,27). Gupta NK, et al.-en ikerketan, EMLA edo vapocoolant espraiak amagandiko edoskitzearekin konbinatzeak negarraren iraupena murrizten ez dutela, baina, min puntuazioak murrizteko gai direla ikusi da (6). Anestesiko topikoak txertaketa gunean aplikatzeak baliteke txertoaren inaktibazioa edota txertoaren xurgapena kaltetzea (2), beraz, anestesiako topikoak erabiltzen badira oso garrantzitsua da anestesiakoaren administrazio gunea txertatu aurretik ondo garbitzea.

Gerta liteke, arrazoi ezberdinengatik amak haurrari amagandiko edoskitzea eskaini ezin izatea; haurrak goserik ez duelako, esaterako. Kasu hauetan edoskitze artifiziala erabil dezakegu txertoen aurkako metodo analgesiko bezala. Viggiano C, et al.-ek ondorioztatu du, nahiz eta edoskitze artifiziala amagandiko edoskitzea bezain eraginkorra ez izan, interbentziorik ez aplikatzearekin alderatuz mina %50ean murrizten dituela zehaztu da (23). Hala ere, metodo honen eraginkortasuna frogatzeko ikerketa gehiago burutu beharko lirateke.

Ikerlan ezberdinak aztertu ostean, nabarmendu behar da mina baloratzeko eskalei dagokionez homogeneotasun handia egon dela. Gehien errepikatu dena NIPS eskala izan da (6,7,23,24,25). Baloratzeko metodo bera ez erabiltzeak emaitzen konparaketa egiterako garaian zailtasun bat suposa dezake. Mina baloratzeko metodoei dagokionez bihotz-maiztasun bidez minaren balorazioa 2 ikerketetan bakarrik erabili dela da (4,24). Kontuan hartuta mina bezalako parametro subjektiboa baloratu nahi dela, bihotz-maiztasuna bezalako neurri objektiboak neurtu beharko genituzke, informazioa ahalik eta zehatzena izateko.

Hainbat artikulutan minaren sentikortasuna eta haurraren sexuaren arteko erlazioa aztertu da (4,5,7,22). Gad RF, et al. eta Lobato CL, et al.-ek ez dute ezberdintasun esanguratsurik aurkitu sexu ezberdineko haurren eta minaren parametroen artean (4,22). Nieto A, et al.-ek 6 hilabeteko neskek mutilek baino min gehiago adierazten dutela ikusi du (5). Boroumandfar K, et al.-en aurkikuntzek erakutsi dute, minaren kontrolean txertoen administrazioan bularra emateak eta txertoaren aurretik vapocoolant esprai aplikatzeak eraginkortasun handiagoa duela nesketan mutiletan baino (7). Hala ere, ikerketa gehiago beharko lirateke bi aldagai hauen zuzeneko eragina egiazkoa den egiaztatu ahal izateko. Gorputz Masa Indizeari (GMI) dagokionez, ez da minean eragina duen aldagai bat (22).

2 artikuluk lehen arreta mailako erizainen artean amagandiko edoskitzearen erabileraren inguruko azterketa burutu dute. Metodo honen inguruko trebakuntza falta eta unitatea edo zentroan protokolo falta agerraraziz (3,9).

6.ONDORIOAK

Hautzaroko txertaketekin lotutako mina aztertzen duten 15 artikuluen berrikuspen narratiboa burutu ondoren honakoak izan dira lanketatik ateratako ondorioak:

Ikusi denez, hasieran planteatutako hipotesia bete da, izan ere, amagandiko edoskitzea metodo analgesikorik ez inplementatzearekin eta beste metodoen erabilerarekin alderatuz metodorik eraginkorrena dela ikusi da. Txertoek eragiten duten minaren ondoriozko jokabide erantzunak, negarraren iraupena eta minaren puntuazioei dagokionez nabarmenki murrizten dituela ikusi da. Hala ere, artikulua landu ostean ezin dugu ondorioztatu amagandiko edoskitzeak inpakturik izan dezakeen haurraren minarekiko erantzun psikologikoan, hori beteko den ikusi ahal izateko ikerketa gehiago beharko lirateke.

Ebidentziaren azterketa egin ondoren amagandiko edoskitzea eraginkorra izateko, edoskitzea txertaketa burutu baino pare bat minutu lehenago hasi behar da, gogotsu hartzen ari dela ikustean erizainak txertoa administratuko du. Edoskitzeak txertoa administratu bitartean eta ondoren jarraitu behar du. Horregatik, kontuz ibili behar da eta kontsulta aurretik haurrari ez zaio gehiegi jaten eman behar, tomak modifikatu beharko lirateke, honela haurra kontsultara gose pixka batekin iritsiko litzateke, kontsultan zehar bularra hartuko duela ziurtatuz.

Literaturaren errebisioa egiteko, ez da aurkitu muga garrantzitsurik. Hala ere, bularreko haurretan mina baloratzeko eskala ezberdinen erabileraren aurrean aurkitu gara, guztira 6 eskala ezberdin erabili dira batzuk homologatuak eta besteak ez. Beraz, emaitzen alderaketa zehatzagoa egiteko mina baloratzeko metodo unifikatu eta homologatu bat egon beharko litzateke, minaren balorazio objektibo bat egin ahal izateko eta artikulua ezberdinen artean konparaketa zehatzago bat egiteko. Nire ustez eskalarik egokiena eta alderdi gehiena kontuan hartzen dituen FLACC eskala da, beste eskalek bezala negarra, jarduera, oinen jarrera, aurpegiko espresioak baloratzeaz gain eskala honek kontsolatzeko gaitasuna ere baloratzen ditu, horregatik eskalarik konpletoena dela iruditzen zait.

Beste oztopo bat ikerketa motak izango lirateke, "itsutasun" falta dela eta. Izan ere, interbentzioa burutzerako garaian, edoskitzea txertoa administratu bitartean eman zeien haurretan ezinezkoa izan da ikerlariari bideo bidezko grabaketan nahiko agerikoa izan da. Kasu honetan, minaren balorazioan eragina izan dezake.

Txertoen administrazioa erizaintzako profesionalen konpetentzia denez, guri dagokigu prozesuan zehar sor daiteken mina bezalako efektu desatseginak zein diren ezagutu, nola baloratu behar diren jakin, hauek prebenitu eta kontrolatzeko metodoen ezagutzak izatea eta praktikan jartzea. Horregatik, txertoen aurkako minaren kontrolerako amagandiko edoskitzearen eta orokorrean, metodo ez farmakologikoen inguruko heziketa eta kontzientziazio kanpainak sortu beharko liratekeela, bai profesionaleri, eta baita, haurren gurasoei zuzenduta ere. Honetarako ezinbestekoa da erakundeen sostengua izatea. Hautzaroko prozedura mingarrien kudeaketa egoki batek, ikusi da, etorkizunean pertsona horrek orratzekiko edo bestelako prozedura mingarriekiko antsietatea eta beldurra izateko arriskua murrizten duela.

Txertoak aplikatzen dituzten erizainei bularreko haurretan minaren balorazioa nola burutu eta honen kontrolaren inguruko heziketa indartu behar da. Honetarako unitate eta zentroetan protokoloak sortu behar dira. Protokolo hauetan amagandiko edoskitzea eman ezin duten pertsonentzat alternatibak planteatu beharko lirateke, hala nola, edoskitze artifiziala edo amaren esnea biberoi bidez administratzea. Hala ere, metodo hauen inguruan ikerketa gehiago egin beharko lirateke.

7.BIBLIOGRAFIA

- (1) Consejo Asesor de Vacunaciones de Euskadi. Manual de Vacunaciones. Txertaketen eskuliburua. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco; 2020. Depósito Legal: VI 370-2016.
- (2) Shah V, Taddio A, McMurtry CM, Halperin SA, Noel M, Riddell RP, et al. Pharmacological and Combined Interventions to Reduce Vaccine Injection Pain in Children and Adults Systematic Review and Meta-Analysis. *Clin J Pian*. 2015;31(10):38-63. DOI: 10.1097/AJP.0000000000000281
- (3) Harrison D, Elia S, Royle J, Manias E. Pain management strategies used during early childhood immunisation in Victoria. *J Paediatr Child Health*. 2013;49(4):313-318. DOI: 10.1111/jpc.12161
- (4) Gad RF, Dowling DA, Abousaad FE, Bassiouny MR, Abd El Aziz MA. Oral Sucrose Versus Breastfeeding in Managing Infants' Immunization-Related Pain: A Randomized Controlled Trial. *MCN Am J Matern Child Nurs*. 2019;44(2):108-114. DOI: 10.1097/NMC.0000000000000512
- (5) Nieto A, Berbel O, Monleón J, Alberola-Rubio J, López ME, Picó L. Evaluation of pain in children of 2, 4 and 6 months after the application of non-pharmacological analgesia methods during vaccination. *An Pediatr*. 2019;91(2):73-79. DOI: 10.1016/j.anpedi.2018.10.002
- (6) Gupta NK, Upadhyay A, Dwivedi AK, Agarwal A, Jaiswal V, Singh A. Randomized controlled trial of topical EMLA and vapocoolant spray for reducing pain during wDPT vaccination. *World J Pediatr*. 2017;13(3):236-241. DOI: 10.1007/s12519-017-0004-y
- (7) Boroumandfar K, Khodaei F, Abdeyazdan Z, Maroufi M. Comparison of vaccination-related pain in infants who receive vapocoolant spray and breastfeeding during injection. *Iran J Nurs Midwifery Res*. 2013;18(1):33-37. PMID: 23983725
- (8) Komaroff A, Forest S. Implementing a clinical protocol using breastfeeding to mitigate vaccination pain in infants. *J Pediatr Nurs*. 2020;54:50-57. DOI: 10.1016/j.pedn.2020.05.017

(9) Aydin D, Sahiner NC, Ciftci EK. Non-pharmacological strategies used to reduce procedural pain in infants by nurses at family health centres. *J Pak Med Assoc.* 2017;67(6):889-894. PMID: 28585588

(10) Organización Mundial de la Salud (OMS). Por una vacunación más agradable. Ginebra: Organización Mundial de la Salud [Internet]. 2015 [consulta: 2020/11/28]. Erabilgarri: <https://www.who.int/features/2015/vaccinations-made-friendly/es/>

(11) García MA, González E, Antúnez AL. Manejo del dolor en Atención Primaria. In: AEPap, editor. *Curso de Actualización Pediatría; 2017ko otsailak 17.* Madrid: Lúa Ediciones 3.0; 2017. 385-396.

(12) Alava J, Aldasoro A, Aparicio E, Bereziartua A, Cidoncha MA, Couso N, et al. Minari heltzeko eta baloratzeko erizaintza protokoloa. Vitoria-Gasteiz: Osakidetza; 2019. ISBN: 978-84-948920-0-4.

(13) Siurana JC. Los principios de la bioética y el surgimiento de una bioética intercultural. *Veritas.* 2010;(22):121-157. DOI: 10.4067/S0718-92732010000100006

(14) Comité Asesor de Vacunas de la AEP. Vacunas: cómo aliviar el dolor. Madrid: Asociación Española de Pediatría [Internet]. 2020 [consulta, 2020/11/28]. Erabilgarri: <http://vacunasaep.org/familias/alivio-del-dolor-al-vacunar>

(15) Zurita JN, Rivas R, Gordillo V, Villasis MA. Breastfeeding for acute pain control on infants: a randomized controlled trial. *Nutr Hosp.* 2017;34(2):301-307. DOI: 10.20960/nh.163

(16) Thomas T, Shetty AP, Bagali PV. Role of breastfeeding in pain response during injectable immunisation among infants. *Nurs J India.* 2011;102(8):184-186. PMID: 22486127

(17) Ávila M, Carbonell L, Gómez A, Méndez M, Rodríguez MJ. ¿Pueden los enfermeros de Atención Primaria contribuir en la disminución del dolor al vacunar? *Vacunas.* 2018;19(1):8-11. DOI: 10.1016/j.vacun.2018.03.006

(18) Cano A, González T, Cabello JB. Plantilla para ayudarte a entender un estudio cualitativo. In: CASPe. Guías CASPe de Lectura Crítica de la Literatura Médica. Alicante: CASPe; 2010. III kuaderno: 3-8.

(19) Cabello JB. Plantilla para ayudarte a entender una Revisión Sistemática. CASPe. Guías CASPe de Lectura Crítica de la Literatura Médica. Alicante: CASPe; 2005. I koaderno: 13-17.

(20) Martín A, Jaén J. Unidad 2. Nuevos tipos de estudios y documentos. Distribución de la información [Internet]. [Kontsulta, 2021/01/14]. Erabilgarri: [http://orlevidencia.org/documentos/texto de la unidad en pdf.html](http://orlevidencia.org/documentos/texto_de_la_unidad_en_pdf.html)

